

ANTZINSOLASA

Antzezlan hau herritik sortutako Trapujaleren kondairan dago oinarriturik. Honen izenez argitaratu zen komikia du abiapuntu eta hortik aurrerakoa imajinazioaren emaitza besterik ez da.

Sorterritik urrun dabilenak maiz izaten du honen beharra eta are maizago gogoratzen han bizitua. Antzezlan honek, azken batean, horixe izan du zirikatzaile, herrimina. Aspaldi utzitako herri baten gainean gogoeta egiteko aski aproposa izan da, bere bizimodua eta hizkera, zoko-bazterrak eta istorioak memoriaren bazterrik ezkutuenetik atera eta paperean jarri ditut.

Antzezlan labur eta erraz honek helburu bakarra du: herriak sortutako herriari itzultzea bere magalean gorde dezan, herriarengan bait dago urte luzeetako bizipenak gogoan gordetzeko betebeharra, lehena izan dadin geroaren bide erakusle.

Alessandria, 1993ko otsailak 18, Ostegunzuri.

TRAPUJALE HERRI ANTZERKIA

1993ko irailaren 1ean Oroitzen A.E.K. Euskaltegian Correostik bidalitako papertxo bat jaso zuten, badakizue, paketeren bat jaso behar denean bidaltzen duten horietakoa.

Joan da, bada, A.E.K.ko kide bat Correosera, eta papertxo horren trukean sobre haundi eta lodi bat eman diote. Norentzat den ikustean jaso du lehen sorpresa, «Lezoko Elkartek» entzat bidali ez dute ba! (Lezoko Elkarte Koordinakundea esan nahiko zuen, noski). Helbidea Euskaltegiarena, Koordinakundeak Lezo Aldizkariarentzat erabiltzen duena. Nondik datorren begiratzin hasi eta oraindik ere harrigarriagoa, ITALIAKO «ALESSANDRIA» hiritik dator. Hori dena, ordea, hasiera besterik ez zen izan; paketea ireki eta barruan zer aurkituko eta TRAPUJALE HERRI ANTZERKIA izena zuen antzerki lan bat! Txukun-txukun idatzi eta liburuxka moduan jarria. Txoko guztiak miatu arren, ordea, ez zen egilearen izenik ageri ez eta bidaltzen zuenaren izenik edo goitizunik ere.

Lezo Aldizkarikook berehalaxe jaso genuen horren berri eta gure gain hartu genuen gertatuaren berri ematea herriko elkarte eta herritarrei. Ez dugu lortu, ordea, egilea nor izan daitekeen argitzea. Bistakoa da egileak propio gorde duela bere nortasuna.

Zeharka bada ere «Sarrera»n egileak erbestean bizi denaren nostalgia aipatzen du, bai eta herriak sortutakoa herriari itzuli behar zaiola ere (Lezoko Ihauteria herriko

elkarteen inguruan sortua dela gogoan izan behar). Nahaste guzti honetan argi dagoena da egilea lezoarra dela (egileak berak aitortzen du eta gainera lezoko hizkeran idatzia dago).

Antzeslanak berak 34 orrialde mekanografiatu ditu eta 3 ataletan dago banaturik. Bertan, TRAPUJALE komikian kontatzen zaigun istorioa antzerki moduan jarrita dator («Antzeslan hau herritik sortutako Trapujaleren kondairan dago oinarriturik. Honen izenez argitaratu zen komikia du abiapuntu eta hortik aurrerakoa imajinarioaren emaitza besterik ez da»). Badakizue, Mariznazkane eta zirikoek Trapujale salatzen dute eta epaiketaren ondoren heriotzera kondenatuko dute....

Oharrak (akotazioak) euskara batuan idatziak daude bai eta pertsonaia batzuren hitzak ere (epailea, intxixua,... gainerakoek, berriz, lezoko hizkera darabilte).

Egileak neurri handi batean komikian esaten dena jarraitzen du baina bere harrobiko zenbait aldaketa eta pertsonaia berriak sartuz.

Gure ustez herri baten historian honelakoak gutxitan gertatzen diren horietakoa da eta garrantzia handia du. Herri ondasuna denez herriko elkarte, ikastetxe eta Udal Liburutegiak laster izango dute ale bana. Ez da falta dagoeneko Herri Antzerki bat antolatu beharraz mintzo denik ere. Ia guztion artean behar duen zabalkundea ematen diogun gure herri kulturari.

LEZO ALDIZKARIA

